

AUTOLIKIDAZIOAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

<p>33. art 37/2013 FA</p>	<p>ZOn sartzen ez diren dibidenduei eta mozkinetako partaidetzei lotuta zerga ondorioetarako garrantzitsuak diren datuak.</p>
<p>34. art 37/2013 FA</p>	<p>ZOn sartzen ez diren partaidetzak eskualdatzearen ondoriozko gainbalioei lotuta zerga ondorioetarako garrantzitsuak diren datuak.</p>
<p>35. art 37/2013 FA</p>	<p>ZOn sartzen ez diren EIren bidez jasotako errenta salbuetsiei lotuta zerga ondorioetarako garrantzitsuak diren datuak.</p>
<p>48. art 37/2013 FA</p>	<p>Egoiliar ez diren erakundeen errentak sartu behar dituzten zergadunek EEE horri buruzko datu hauek eman beharko dituzte aitortpenarekin batera:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Sozietatearen izena eta egoitza b) Administratzaileen zerrenda. c) Balantzea eta galera-irabazien kontua. d) ZOn sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa. e) ZOn sartu beharreko errenta positiboa dela eta ordaindutako zergen frogagiriak.
<p>8. art 41/2014 FD</p>	<p>FAko 24. artikuluan arautu den finantza merkataritzako funtsa aplikatzeari buruzko informazioa, bai zuzenean partaidetutako erakundeari dagokionez bai erosten diren partaidetzen erakundeak era berean beste batean parte hartzen duenean, baina betiere FAko 24. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa betez.</p>
<p>43.9. art 41/2014 FD</p>	<p>Merkataritzako funtsa amortizatzen ez bada erakunde eskualdatzaileak FAko 34. artikuluan ezartzen den gainbalioen salbuespena aplikatu duelako, erakunde eskuratzailak hurrengo informazioa aurkeztu beharko du autolikidazioarekin batera:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Erakunde eskualdatzailearen identifikazioa eta bertako partaidetzaren portzentajea. b) Erakunde eskualdatzailearen partaidetzen balioa eta bakoitzaren eskuraketa data, eta partaidetza horiei dagozkien funts propioen balioa, homogeneizatutako urteko kontuak oinarritzat hartuta zehaztuta. c) Balorazio homogeneizazioaren eta behin-behinekoaren irizpideen justifikazioa, baita erakunde eskualdatzailearen ondasunei eta eskubideei egotzitakoa ere partaidetzen eskuratze prezioaren eta horiei dagozkien funts propioen arteko aldea erakundea desegitearen egunean.
<p>3. art 60/2004 FD</p>	<p>16/2004 FAren araubideari heldu dioten irabazteko xederik gabeko erakundeek memoria ekonomikoa aurkeztu beharko dute.</p>